

## PRODUKTU FITOSANITARIOEN ERABILERA IRAUNKORRA

**Nekazaritzako ekoizpen-kateko operatzaileek erantzukizun garrantzitsuak dituzte, eta erantzukizun horiek lotura zuzena dute produktu fitosanitarioekin eta garapen iraunkorrerako bidearekin.**

**Tartean dauden guztiek neurriak hartu behar dituzte, ahalik eta gehiena murrizteko giza osasunari eta ingurumenari kalteak eragin ahal dizkion edozein arrisku.**

### 1311/2012 ERREGE DEKRETUA

Zergatik argitaratzen da legeria hau?

**1311/2012 Errege Dekretuak produktu fitosanitarioen erabilera iraunkorra lortzeko **jarduera-esparrua** ezartzen du, **produktu fitosanitarioek giza osasunari eta ingurumenari eragiten dizkien arriskuak murriztuta.****

Araudi horrek sustatu egiten du produktu fitosanitarioak merkaturatzeari, erabiltzeari eta erabilera arrazional eta iraunkorra egiteari buruzko zenbait xedapen araudiari jarraikiz garatzea. Hain zuzen ere, xedapen horiek Landareen osasunari buruzko azaroaren 20ko [43/2002 Legeak](#) ezartzen ditu.

Errege Dekretuak araudi nazionalera lekualdatzen du [Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2009/128/EE Zuzentaraua, 2009ko urriaren 21ekoa, plagiziden erabilera iraunkorra lortzeko jarduera-esparru erkidea ezartzen duena](#). Zuzentarau horren bidez, Europar Batasunak lehenengoz eta oro har araupetzen du produktu fitosanitarioen erabilera.

Beraz, Errege Dekretu hau garrantzitsua da, besteak beste, produktu fitosanitarioak erabiltzeak giza osasunari eta ingurumenean eragiten dituen arriskuak eta ondorioak murrizten dituelako, izurriteen kudeaketa integratua sustatzen duelako eta bestelako planteamendu edo teknikak bultzatzen dituelako, hala nola, metodo ez kimikoak. Produktu fitosanitarioen ekoizpenaren, banaketaren eta erabiltzaileen (nekazariak eta erabiltzaile profesionalak) sektorerako zenbait neurri eta betebeharrak ezartzen ditu.

### 1311/2012 ERREGE DEKRETUAN AURREIKUSITAKO ALDAKETAK

#### ROPO

Gaur egungo Establezimenduen eta Plagizida Zerbitzuen Erregistro Ofizialeko (ROESP) produktu fitosanitarioen atala **Ekoizleen eta Operatzaileen Erregistro Berrian (ROPO)** integratuko da. Horren baitan alde zuzenak jasota ez zeuden jarduerak daude.

Guztira 4 atal izango ditu: hornikuntza-sektorea, tratamendu fitosanitarioen sektorea, aholkularitza-sektorea eta erabiltzaile profesionalak.



#### IZURRITEEN INTEGRATUA

#### KUDEAKETA

**Aurreikusi da 2014tik aurrera nahitaez jarraitu behar izatea izurriteen kudeaketa integratuko printzipio orokorrak** ustiatzean, produktu fitosanitario gutxi erabiltzen dituzten ustiatzean salbu. ([Aholkularitza kanpo gelditutako laborantzen zerrenda](#)).

Esparru profesionalean, barazkien izurriteen

# PRODUKTU FITOSANITARIOEN ERABILERA IRAUNKORRA



kudeaketa produktu fitosanitarioen kontsumo txikiko jardunbideak ezarrita egingo da eta, ahal dela, lehenetasuna emango zaie metodo ez kimikoei.

Gainera, erabiltzen diren produktu fitosanitarioek ahal bezain zehatzak izan behar dute helbururako, eta ahalik eta ondorio gutxiena eragin behar dute giza osasunerako, xede ez diren organismoetarako eta ingurumenerako.

**Ekoizpen ekologikoa, ekoizpen integratua eta egiaztatutako ekoizpen-sistemak bezalako sistemek bat egiten dute araudi honekin. Gauza bera gertatzen da multzoetan edo ofizialki aitortutako izurriteen kudeaketa integratuko aholkularitza-erakundeetan dauden ekoizleen izurriteen kudeaketarekin.**

Ekoizleen artean jarraitu beharreko lan egiteko moduaz aholku praktikoak zabaltze aldera, Nekazaritza Ministerioa 41 informazio-gida egiten ari da, laborantza guztiak jasotzeko. Lehenengo 9ak azken fasean daude jada.

Gidetan laborantza bakoitzaren izurriteak eta gaixotasunak landuko dira. Halaber, izurriteen kudeaketa integratua egiteko estrategia posibleak aurkeztuko dira. Horietan, metodo kimikoak eta bestelakoak (kulturalak, kontrol biologikokoak, etab.) konbinatuko dira.

## AHOLKULARIAREN IRUDIA

Errege Dekretuan aurreikusitako sistemetan jaso ez diren ustiategietarako, **aholkulariaren irudia ezarri da**: ustiategietan izurriteen kontrola aplikatzeko funtsezko elementua izango da. **Aholkularitzak kontratu bat eta lanerako plan bat idaztea dakar**, eta horretan aholkularitzari dagokion dokumentazioa jaso behar da. [Izurriteen Kudeaketa Integratuari buruzko aholkularitza-dokumentazioa](#).

Izurriteen kudeaketa integratuan aholkulari gisa jarduteko, beharrezkoa izango da autonomia-erkidegoko organo eskudunaren aurrean egiaztatzea **horretarako gaitasuna ematen duen titulazioa daukatela eta** Ekoizle eta Operatzaileen Erregistro Ofizialeko **“aholkulariak” atalean izena emanda dutela**.

Titulazioaren baitan daude lizentziaturak, goi-mailako ingeniariak, ingeniariak teknikoak, graduak titulatuak, masterreko titulatuak edo hirugarren zikloko titulatuak, eta goi-mailako lanbide-heziketako titulatuak, guztira 40 ECTS

(kreditu) gehitzen badituzte barazkien ekoizpenarekin lotura zuzena duten gaietan.

## USTIATEGIKO KOADERNOA

**2013ko urtarrilaren 1az geroztik, nekazaritza-ustiategi bakoitzak eguneratuta eduki behar du “ustiategiko koaderno” izeneko tratamendu fitosanitarioen erregistroa.** Bertan, egindako tratamendu fitosanitario guztien berri jasoko da.

**Ustiategietan egiten den tratamendu bakoitzerako, honako informazio hau zehaztu behar da:** aplikatzailearen eta, halakorik badago, aholkulariaren identifikazioa; erabilitako makinaren edo tratamendu-ekipoaren identifikazioa; bidezkoa denean, erregistro-zenbakiaren adierazpena; tratamenduaren eraginkortasunari buruzko balorazioa; tratamenduaren data; kontrolatu beharreko izurritea; lursailaren identifikazio-zenbakia; laborantza; azalera; aplikatutako produktuak; produktuaren kilogramo edo litroak; eta bidezko bestelako oharak.

Ustiategiaren titularrak eta bere lanbidean produktu fitosanitarioen bidezko tratamenduak egin behar dituen beste edozein pertsonak edo enpresak **identifikatu egingo ditu azaleko uraren putzuak eta masak, eta horri buruzko oharra jasoko du ustiategiko koadernoan edo tratamenduen erregistroan.**



## UREN BABESA

Errege Dekretuak **ingurumenaren eta ur edangarriaren babesari, eta eremu jakin batzuetan arriskuak murrizteari** buruzko alderdiak jasotzen ditu (habitat eta espezieen babes-eremuak, eta uretako espezieen babes-eremuak). Halaber, neurriak ezartzen ditu produktu fitosanitarioak nekazaritzaren

# PRODUKTU FITOSANITARIOEN ERABILERA IRAUNKORRA



esparrutik kanpo erabili ahal izateko.

Gutxieneko **segurtasun-lerroa** errespetatu beharko da, **azaleko ur-masen aldean, 5 metrokoa izanik. 3 m/s-tik gorako haizea dagoenean, debekatuta dago kasu orotan tratamenduak egitea.** Tratamendu-ekipoa **erregulatzeke eta egiazatzeko operazioak** produktu fitosanitarioa nahastu eta kargatu aurretik egingo dira; gutxienez, kutsa daitezkeen **ur-gune eta -masetatik 25 metrora.**

**Giza kontsumorako ura ateratzen den eremuetan, gutxienez 50 metro utziko dira tratatu gabe.**

## ERABILTZAILE PROFESIONALEN PRESTAKUNTZA

Errege Dekretuak ezartzen du **2015eko azaroaren 26tik aurrera hala erabiltzaile profesionalak nola saltzaileek produktu fitosanitarioen erabiltzaile-agiria eduki beharko dutela.** Agiri hori lortzeko, titulazio-betekizunak bete edo ikastaroak gaingitu beharko dira. Honako hauek dira Errege Dekretuak ezarritako biltze-mailak: oinarritzakoa, kualifikatua, fumigatzailea eta pilotu aplikatzailea.

- **Oinarritzakoa (gutxienez 25 ordu):** lurreko eta aireko tratamenduetako (nekazaritzaz landakoak barne) langile laguntzaileentzat eta ustiatzean bertan laguntzailerik gabe jarduten duten eta gas toxikorik, oso toxikorik edo hilkorrik eragiten ez dituzten produktu fitosanitarioak erabiltzen dituzten nekazari-entzatzat. Halaber, produktu fitosanitarioak manipulatzeko dituen banaketa-lanetako langile laguntzaileentzat emango dira.
- **Kualifikatua (gutxienez 60 ordu):** lurreko tratamenduz (nekazaritzaz landakoak barne) arduratzen diren erabiltzaile profesionalentzat eta laguntzaileak baliatuta tratamenduak egiten dituzten nekazari-entzatzat. Halaber, erabilera profesionaleko produktu fitosanitarioen salmentan zuzenean esku hartzen duten langileentzat.
- **Fumigatzailea (gutxienez 25 ordu):** tratamenduko produktu fitosanitarioa gas toxikoa, oso toxikoa edo hilkorra

denean, produktu hori aplikatzen dutenentzat.

- **Pilotu aplikatzailea (gutxienez 90 ordu):** tratamendu fitosanitarioak hegazkinak erabilia egiten dituztenentzat.

Aholkulariari dagokion titulazioa duten pertsonak ez dute ikastarorik egin beharko: eskaera zuzenean egin eta prestakuntza egiaztatu ondoren, titulua autonomia-erkidegoetako administrazio eskudunak emango du.

Agirien baliagarritasuna 10 urtekoa da.

## PRODUKTU FITOSANITARIOAK SALTZEA

**Produktu fitosanitarioen ekoizle eta banatzaileei ezarritako betekizun berria: produktu horiekin eginiko operazio guztien erregistroa sortu behar dute.** Erregistro horrek ordezkatu egiten du plagizida arriskutsuen mugimenduen lehengo liburu ofiziala (LOM). Bertan, produktu toxikoak eta oso toxikoak besterik ez ziren jasotzen.

Horrela, **produktu fitosanitarioen transakzioen erregistro bat egongo da, derrigor bete beharrekoa produktu horiek banatu eta aplikatzeko prozesuan esku hartzen duen pertsona ororentzat.** Horrela, ekoizle eta banatzaileek Errege Dekretuko 25.1 artikuluan zerrendatutako datu guztiak jasoko dituzte (transakzioaren data, produktu fitosanitarioaren identifikazioa –izen komertziala, inskripzio-zenbakia Produktu Fitosanitarioen Erregistro Orokorrean eta fabrikazio-lotearen zenbakia edo erreferentzia, hala badagokio–, transakzio-gai den produktuaren edukia eta hornitzailearen eta eroslearen identifikazioa –izen-abizenak edo gizarte-helbidea, helbidea edo gizarte-egoitza eta IFZ–).

Halaber, produktu fitosanitarioak aplikatzen dituztenek Errege Dekretuko 25.2 artikuluan zerrendatutako datu guztiak jasoko dituzte.

**Fitosanitarioak dagokion mailako**

# PRODUKTU FITOSANITARIOEN ERABILERA IRAUNKORRA



**fitosanitarioen erabiltzaile-agiria dutela egiaztatzen duten erabiltzaile profesionalei besterik ez zaizkie salduko.** Salmenta egitean produktu fitosanitarioak erabiltzeak dakartzan arriskuen berri emateaz gain (bereziki, arriskuei, esposizioari, biltegiatzeari, manipulatzeari, aplikatzeari, segurtasun-baldintzekin desagerrarazteari eta arrisku txikiko alternatibei buruz), establezimenduetan beharrezkoa izango da unibertsitateko titulua duen pertsona bat egotea.

## PRODUKTU FITOSANITARIOEN ERABILERA IRAUNKORRA: PLAN NAZIONALA

1311/2012 Errege Dekretuak garatu egiten du [Produktu fitosanitarioen erabilera iraunkorrerako jardueraren plan nazionala \(JPN\)](#). Plan horretan jasotzen dira helburu orokor eta zehatzak, eta helburu bakoitzaren baitan egin beharreko neurriak ere jasotzen dira.

JNPK agintarien eta organo eskudunen **jarduerak** biltzen ditu, eta helburuak, neurriak, egutegiak eta adierazleak ezartzen ditu, **2013tik 2017ra** bitarteko aldian **produktu fitosanitarioen erabileran iraunkortasun-irizpideak** sartze aldera.



JPNren bidez, honako helburu hauek lortu nahi dira: **Hobetzea** produktu fitosanitarioen erabilera iraunkorrari eta seguruari buruzko **prestakuntza eta informazioa**.

- **Ikerketa, berrikuntza eta transferentzia teknologikoa sustatzea** izurriteen kudeaketa integratuan eta produktu

fitosanitarioen erabilera iraunkorrean.

- **Izurriteen kudeaketa integratua sustatzea**, produktu fitosanitarioen erabilera arrazionala lortzeko.
- Izurriteak, gaixotasunak eta belar txarrak kontrolatzeko **produktu fitosanitario** eraginkorren **erabilgarritasuna sustatzea**. Aldi berean, osasuna eta ingurumena errespetatzea bilatuko da.
- **Sustatzea** produktu fitosanitarioak erabiltzean sortzen diren **arriskuak murrizteko teknikak**.
- **Sendotzea** produktu fitosanitarioak merkaturatzeari eta erabiltzeari buruzko **zaintza-programak**.
- **Murriztea** produktu fitosanitarioak babes bereziko **eremu minberetan eta natur eremuetan** erabiltzetik eratorritako **arriskua**.

## ONDORIOAK

- **Izurriteen kudeaketa integratua sustatzen da, produktu fitosanitarioen kontsumo txikiko laborantza-jarduerak erabiltzeko** (uzten errotazioa, erresistentzia duten aldaerak erabiltzea, ongarrizte-jarduera orekatuak, etab.).
- **Aholkulariaren irudia** gehituta, **nekazaritzako aholkularitzak indar bizia hartzen du**. Horri esker, aholkulariak **produktu bat erabiltzeko** aholkatzean duen zeregina ere handitzen da; zehazki, **giza osasunerako eta ingurumenerako arrisku gutxiago dakarten jarduerak eta produktuak hautatzeko aholkuak emango dira**.
- **Bereziki nabarmentzen da uraren eta ur edangarriaren babesa, azaleko ur-masekiko eta putzuekiko gutxieneko segurtasun-lerroak ezarrita**. Horri buruzko atal oso bat dago (VII. atala).
- **Prestakuntza funtsezko elementua da produktuak ezagutzeko, nola aplikatu jakiteko, izurrite batzuetarako produktu eraginkorrenak zein diren jakiteko**



PRODUKTU  
FITOSANITARIOEN  
ERABILERA IRAUNKORRA



**eta produktu fitosanitario horiek eragin ditzaketen arriskuen jakitun izateko.** Hori dela eta, produktu fitosanitarioen saltzaileei ere informazio gehiago ematen zaie.

#### ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTAZIOA

- [Nekazaritza. Produktu fitosanitarioen erabilera iraunkorra – MAGRAMA \(2013\)](#)
- [Nekazaritza. Produktu fitosanitarioen erabilera iraunkorra – Andaluziako Batza \(2013\)](#)
- [Nekazaritza. Produktu fitosanitarioen erabilera iraunkorra. Aragoiko Gobernua](#)
- [Fitosanitarioen etorkizuneko oinarriak. Aldizkari agrokimikoa](#)
- [Oinarrizko informazioa fitosanitarioen erabiltzaile profesionalentzat. AEPLA](#)
- [Babestu ura landare-estalkiko tarteekin. AEPLA](#)
- [Jardunbide fitosanitario egokiak eremu berdeetan eta nekazaritzaz landako eremuetan. AEPLA](#)
- [Info-buletina: nekazaritza - ELIKA](#)

Nekazaritzari buruzko  
informazio gehiago nahi  
duzu?

[http://www.elika.net/eu/agricultura\\_home.asp](http://www.elika.net/eu/agricultura_home.asp)

